


BALIO PROPOSAMENA

Gu BHE (Basque Hydro Energy) enpresa gara eta energia berriztagarria sortzen dugu. Lau bazkide gaude lanean, Denis, Ekhiotz, Irati eta Ekiñe. Gaur egun, energiarekin arazo larri bat dago, gero eta eskaera handiagoa dago; horren ondorioz, prezioak igo egin dira eta arazoa handitu egin da, hezkuntzan, osasunean eta gizarte osoaren funtzionamenduan eraginez. Beharrezkoa da energia garbi eta berriztagarrietan inbertitzea.

Horregatik; guk, energia modu garbian eta denontzat eskuragarri izango den modu bat eskaintzen dugu.

Izan ere, gure proiektua ez da soilik negozio bat beste enpresa handiek egiten duten bezala, baizik eta gure helburua gizartearentzat energia bermatzea da.

Hori lortzeko, gure helburua euriaren mugimendurekin energia lortzea da; horretarako, generadore hidroelektrikoak jarriko genituzke, hau da, errota batzuk. Errota horiek estolderiatan, teilatuetan, kanaletan etab. jarriko ditugu, esate baterako, ur mugimendu asko dagoen lekuetan.



Urak errotaren elizeak mugitzen ditu eta horrela euriarekin energia sortuko dugu. Nahiz eta badakigun konpetentzia handia dugula, Iberdrola, Endesa, Naturgy eta Repsol Renovables bezalako enpresek ez bezala, gure produktua energia berritzailea da, eta gizarteari eskaintzen diogu. Gure energia euriaren bidez sortzen da, eta helburua gaur egun dagoen energia-arazoari aurre egitea da. Gure proiektuarekin, gaur egun dagoen energiaz gain, energia gehiago lortuko dugu. Energia eta bezero asko lortzea da helburua, gure bezeroengana iristeko gure web orritik online bidez erosteko aukera izango dute eta zerbitzu bat kontratatuko dugu produktua banatzeko.

ONURAK:

- Euriaren mugimendua aprobetxatzea
- Ura gordetzeko aukera izango dugu etorkizunean, larrialdi bat, adibidez, itzalaldi bat izaten badugu, herriak argitzeko erabiliz.
- Euskal Herrian jartzen baditugu badakigu euria egingo duela, nahiz eta klima aldaketaren ondorioz gero eta euri gutxiago egin, baina konturatu gara euria egiten duenean asko egiten duela, beraz guk euri hori biltegiratu edo euriak sortutako energia gorde egingo dugu.

Etorkizunerako bidean goaz, bazatuz?

Horrez gain, 2030eko 17 helburuen arteko hainbat helburu betetzen ditugu, hemen dugu helburu bakoitza garatuta:

- **7. Energia irisgarria eta ez kutsagarria** helburuarekin konprometitzen gara, energia jasagarri eta ez kutsatzailea sortzen. Energia berriztagarriak sustatu, eraginkortasuna hobetu eta guztiei elektrizitatea eskainiko diegu. Denek energia fidagarri, jasagarri eta eskuragarria izatea.
- **13. Klimaren aldeko ekintza:** Klima-aldaketaren eta haren ondorioen aurka neurri urgenceak hartzea da helburua. Berotegi-efektuko gasen emisioak murriztea eta energia garbi eta jasagarritasunean inbertitzea.



- **11. Hiri eta komunitate jasangarriak:** Azpiegitura eta zerbitzu publikoak hobetzea (argindarra, garraioa, ura, etab erabiliz), energia garbia eta eraginkorra erabiltzen duten hiriak sustatzea eta kutsadura eta baliabideen xahuketa murriztea.



- **12. Ekoizpen eta kontsumo arduratsuak:** BHEk, euria egiten duenean, energia sortzen du. Gure helburua, ezusteko bat gertatzean jendeak ekoiztutako energia modu arduratsu batean erabiltzea da, energia berriztagarri eta garbi bat aukeratzean. Horrela denek energia hori eskuragarri izan dezaten.

